

HAN GAUA
MARTXOKO IRTEERA 2019/03/10


LEKUBASO USANSOLO – TXITXIBURDUNTZI EGUNA

(eguraldi onarekin)

10:00 Atxuriko tren geltokian: guraso eta umeekin elkartu. Umeak banaka deitu eta zapiak jarri.

10:30 Trena hartu Usansolorantza.

10:45 Usansolora heldu eta ibilbideari ekingo diogu.



11:30 Ibilbidearen erdian, hamaiketako egingo dugu indarrak hartzeko eta falta zaigun zatia burutzeko.

12:15/12:30 Lekubasora heltzean, lekua ezagutu eta bertan dagoen “merenderoan” txitxiburduntziaren prestaketari ekingo diogu...



13:00 – 14:30 Suak eginda eta dena prest dagoenean, bakoitzak prestatutako makiltxoak eta txorizoa edo jakia sutan jarriko du (taldeka) gero jarraian denok elkarrekin jateko.

14:30 – 15:30 Jolas gidatuak

15:30 Usansolora buelta trena hartzeko.

16:39 Usansolon trena hartu eta Bilbora buelta

17:00 Umeak gurasoekin elkartu eta agurtu

OHARRAK:

- Ume bakoitzak txitxiburduntzia egiteko makila ekarri beharko du. Makila egokia izan behar da: ez oso luzea ez oso laburra, egurrezkoa eta ez da oso astuna edo pisutsua izan behar.
- Txitxiburduntzia egiteko janaririk egokiena txorizoa da. Beste jaki batzuk ere ekarri daitezke, baina beti ere kontuan izanda su ondoan egin behar direla eta ikasle bakoitzak denbora murriztua duela bere janaria egiteko, beraz zenbat eta errazago egin janaria hobeto. (Hamburgesak, etab ez dira egokiak)



- Arropa egokia ekarri behar da. Nahiz eta eguraldi ona egin lupetzez beteta egon daiteke dena. Beraz mendiko arropa eta oinetakoak ekarri. Euritako txiki bat ere beharrezkoa da.

LEKUBASO USANSOLO – TXITXIBURDUNTZI EGUNA

(eguraldi txarrarekin)

Euria bada, ibilbidea egin eta Usansoloko polikiroldegira bueltatuko gara. Bertan, jolas gidatuak egin eta bazkalduko dugu.

OHARRA: Euria bada, ezin izango dugu txitxiburduntzia egin. Beraz, eguraldi ona edo txarra egin, umeek ogitartekoa edo bestelako jakiak ere ekarri beharko dituzte nahitaez.